

## Atariko hitzak

XX. mendeko 70eko hamarkadaren bukaera aldean Irakasle Eskolan ari nintzela, pedagogiako liburu batzuk irakurri behar izan genituen. Haien artean, A.S. Neill-en *Summerhill* liburua zegoen. Hura irakurtzeak izugarritzko zirrara sortu zidan, irakaskuntzaren mundua oraindik ezagutu gabe banengoen ere, oso ideia argiak eta logikoak iruditu baitzitzaizkidan. Ordudanik, hezkuntza-sistema tradizionalen sartuta egonda ere, hura ideala izan da niretzat. Horregatik, pedagogia-testu klasikoan artean *Summerhill* liburuak apal berezian egotea merezi duela uste dut, eta halako lan garrantzitsua euskarara itzultzea ezinbestekoa iruditu zait.

Alexander Sutherland Neill edo A.S. Neill (Forfar, Eskozia, 1883 - Aldeburgh, Ingalaterra, 1973) irakasle tradizional baten semea zen, hamahiru neba-arrebetan laugarrena. Aita irakasle zorrotza zen eta une oro zigortzen zuen Neill. Horrek guztiak eragin handia izan zuen Neillengan eta hark garatutako pedagogia-ereduan.

Hamalau urte zituela lanean hasi zen Edinburgoko bulegari baten laguntzaile. Aurrerago, amak gomendatuta, aitarekin batera lan egin zuen hainbat urtez. Eskoziako zenbait herritako eskoletan ere aritu zen irakasle. 1912an, Ingelesean lizentziatu zen Edinburgoko Unibertsitatean. Kazetaritzan aritu eta gero, gerra-garaian, Eskoziako Gretna Green herrixkako eskolako zuzendari-lanak bete eta heziketa-gaiei buruz idazten hasi zen. Horrela, bere lehen liburua argitaratu zuen: *A Dominie's Log*.

Pedagogia ofizial britainiarrarekin kritikoa izanik, Alemaniara joan zen 1921ean eta Dresdeko auzo batean beste lagun batzuekin batera Nazioarteko Eskola sortu zuen. Handik bi urtera Austriara eraman zuen, Sonntagberg herrira. 1924an Lyme Regisen (Dorset, Ingalaterra) Summerhill izeneko lursail batean eskola-barnetegia sortu zuen eta 1927an eskola hori Leiston herrian kokatu zuen, Londrestik 165 kilometrora. Eskola hartan bost urtetik hemezortzira bitarteko neska-mutilak hartzen zituen.

Handik aurrera, Neill eta Summerhill batera joango dira, eta oso zaila izango da bata bestea gabe ulertzea. Sigmund Freud-ek, Wilhelm Reich-ek eta Homer Lane-k eragin handia izan zuten haren pentsamendu eta jardueran. Aurrerantzean, oso entzutetsu eta ospetsu bilakatu zen Ingalaterran, baina batez ere Estatu Batuetan eta Alemanian. Haren liburu eta idatziek teoriko erradikal horren ikuspegia zabaldu zuten hezkuntzan-arloan.

A.S. Neillen ideia pedagogikoak Summerhillen gauzatu ziren, bertan jarri baitzuen praktikan Neillek bere hezkuntzaren ikuspegia: Autoritarismorik eza eta ikasleen erabateko askatasuna aplikatzen ditu, gizakiak berez onak direlako eta zoriona bilatu behar delako printzipioetan oinarrituz. Klase arruntak eta tailerrak ematen badira ere, jolasei eta jarduera artistikoei garrantzi handia ematen die. Dena den, hori guztia haurrak klaseetara joateko duen askatasunean oinarritzen da, haurrak erabateko askatasuna du zer ikasi nahi duen erabakitzeke, alegia. Diziplina zorrotzak sortzen duen beldurraren orde, maitasuna eta onespena eskaintzen dizkio haurrari, bere garapen fisiko, emozional eta sexuala kontuan hartuta. Benetako ikaskuntza bizikidetzan, autogobernuan eta erantzukizunean ematen da, askatasunez baina lasaikeriarik gabe. Eskolaren organo gorena Batzarra da eta bertan haurrek eta helduek eskubide bera dute, arauak erabakitzeke eta gatazkak konpontzeke. Laburbilduz, Summerhill eskola demokratikoaren eredia da eta eskola tradizionalaren metodoari aurre egiten dio. Ez da harrizkeoa, beraz, gobernuak hainbat oztopo jartzea.

Neill hil ondoren, haren emazte Enak hartu zuen eskolaren ardura 1985era arte eta handik aurrera Zoe alabak jarraitzen du haren lanarekin.

Itzulpenari dagokionez, jatorrizko testua erabiltzeaz gain, zalantzazko kasu batzuetan, gaztelaniazko bertsioa ere kontsultatu dut, lanaren ildoari eustearren. Izan ere, nire lanean euskarari jarraitutasuna eman nahi izan diot, ulermena eta zentzua ez galtzeko. Horretarako, hainbat kontzeptu zehaztu edota bereizi behar izan ditut; beste batzuetan hitzez hitzeko itzulpena egin beharrean, gure inguruan erabiltzen dugun terminologia erabili izan dut. Dena den, irakurleak ikusiko duenez, garai hartako ideia eta kontzeptu batzuk egun zaharkituak geratu dira edota beste era batera ulertzen ditugu. Beste batzuk, ordea, egun egingarriak direla uste dut. Nire aldetik, garai hartako hizkera eta pentsamoldeak errespetatzen saiatu naiz, salbuespen batekin, liburuan hainbat leku konkistatzaileek jarritako izen kolonialez aipatzen dira eta nik haien benetako izenak erabili ditut. Horretaz gain, ohar ugari erantsi

dizkiot lanari, irakurleari testuinguruan hobeto kokatzen laguntzeko. Beraz, A.S. Neillen ideiak egoki jaso eta irakurleari ondo helarazi izana espero dut.

Azkenik, nire esker beroenak eman nahi dizkiet Arantxa Urberi testua ulergarriagoa egiten laguntzeagatik eta sarreragatik, eta UEUri lan hau argitaratzeagatik.



## Hitzaurrea

Zein ote da Eskolaren printzipio nagusia? Eskolarena, orokorrean, baina baita lan egiten duzun eskola horrena ere; zure seme-alabak hezten dituen eskolarena; eta, noski, zuk zeuk ikasi zenuen eskola harena?

A.S. Neill (Eskozia, 1883 - Ingalaterra 1973) hezitzaile, pedagogo, idazle, psikologo, kazetari eta filosofoak sortu zuen Summerhill eskola printzipio nagusi batek zuzendu zuen hasieratik: ASKATASUNA. Eta printzipio horri leial darraio Summerhill 100 urte geroago, artean, ikasleak zoriontasun propioa aurkitzeko bidean laguntzen.

*Summerhill: A Radical Approach to Child Rearing* bere lanean, Neillek hainbat definizio zehaztu eta jorratu zituen eskolaren misioa askatasuna bilakatzeko bidean. Hala, «bizitzaren helburua zoriontasuna» dela azpimarratzen du, eta hura lortzeko bidean haurren betebeharra beren bizitza bizitzea dela; eta irakasleek, berriz, bete behar duten agindu bakarra, «Haurren alde egongo zara» da.

Era berean, helduoi —haurren gurasoei eta irakasleei— ohartarazpen argia egiten digu: «[...] zure haurrak ez dira zure haurrak, bizitzaren irrikaren seme-alabak dira, berez [...]».

Gaur egun hitzetik hortzera darabilgun Arrakastaren gaineko bere ikuspegia azaltzen digu Neillek *Summerhill*en. Haren iritziz, arrakastaren gakoa «alaiki lan egiteko eta baikor bizitzeko gaitasuna da». Eta bere gogoetan, definizio horren arabera, ondorioztatzen du Summerhillgo ikasle gehienak arrakastatsuak direla.

Neillek bere teoriak egikaritu zituen Summerhillen, eta liburuan zehaztasunez xehatzen ditu zein diren helburu zituenak martxan jartzeko oinarriak. Horien artean zeuden ikasleen autorregulazio emozionala; elkarbizitza eta eskolaren funtzionamenduaren arauak elkarrekin eztabaidatu eta erabakitzea; eta, seguruenik, guztiari eutsi zion eta denari zentzua eman zion eskubide-berdintasuna: haurrek eta helduek eskubide berberak baitituzte Summerhillen, izan ikasle gazteena zein zuzendaria bera.

Teoria, ideia, printzipio eta praktika guztiak artikulatzeko, gainera, tresna eskaini zuen Neillek bere lanean: Summerhillgo kide guztiek parte hartzen duten eskolako batzarra.

Neillek Summerhillen ondu eta garatu zuen ereduak garaiko hezkuntza-metodologiak irauli zituen, ezbaierik gabe. Gaur egun dirauen bizitza eta hezkuntza ikusteko eta ulertzeko modu horrek pedagogia-eredu berritzaile bat zabaldu zuen mundu osora.

Haurren eskubideekin, askatasunarekin eta bizitzarekin berarekin konprometitua den eskola aurkezten digu Neillek bere *Summerhill* liburuan. Esku artean duzun *Summerhill, haurren hezkuntzari buruzko ikuspuntu erradikal bat* lanari esker, orain, mende oso bat geroago, Ingalaterran esan eta egindakoak euskaraz irakurtzeko aukera izango duzu. Liburu honek, bide batez, beste aletxo bat ekarri du pedagogia unibertsalean esanguratsuak izan diren autoreek beste hizkuntzetan —hizkuntza hegemonikoetan, gehienean— argitaratu eta aurrera eramán zituzten praktika horien berri euskaraz jasotzeko. Pozgarria da Pedagogia Unibertsalaren erreferentziak euskaraz ere izatea, Euskal Pedagogia eraikitzeke baliagarria izango delakoan. Oxala, hau bezalako ekarpenen atzetik beste ekarpen berri batzuk baletoz, euskaratik pedagogia eraikitzen jarraitzeko.

Ahalegin hutsala litzateke *Summerhillen* azaldutakoak berez eta besterik gabe gurera ekarri nahi izatea. Izan ere, artean, munduko mapan marraztea lortu ez dugun herri zapaldua da gurea. Ikasle askok etxetik ekartzen ez duten, kalean presentzia gutxi duen eta askotan jazarria den eta bere lurralde guztietan ofiziala ez den hizkuntzan, euskarán, ikasi eta ikasteko hizkuntza baita gurea. Neillek Summerhill irudikatu eta antolatu zuenean erronka askori aurre egin behar izan zion. Ez, ordea, gutxitutako hizkuntzaren biziberritzeari, biziraupenari, ezta haren kulturaren transmisioari ere. Herri honetan, hezkuntza-arloan ere, dugun erronka behinenei, alegia.

Urrun daude Summerhill eta Neillen planteamenduak, bere horretan, guregandik. Urrun denboran eta urrun errealitatean. Alferrik saiatuko ginatke geure egiten, debaldeko helburua genuke: han eta hemen, orduan eta orain erantzun beharreko erronkak ez baitira berdinak. Baina bai, izan daitezela inspiratzaile, ordea. Inspirazio, alde batetik, gure eguneroko praktika hobetzeko ezinbestekoa dugun praktika gogoetatsuan hemen esandakoak aintzat hartzeko eta gure hausnarketetara atxikitzeko; eta, beste

alde batetik, eraiki nahian gabiltzan Euskal Hezkuntza Sistema norabidetuko duten koordinatuen artean integratzeko.

Itzul gaitezen eskolara. Zein izan beharko luke amesten dugun, eta Euskal Herrian, Europako hizkuntza zaharrenetakoa eta txikia duen munduko bazter honetan, eraiki nahi dugun Eskolaren printzipio eta misio nagusia? Neillek Summerhill amestu eta bidean ipini zuenean egin zuen moduan, egin dezazun guk ere hemen. Muga guztien gainetik, misio desiragarria litzateke ASKATASUNA eskola batentzat, zalantzarik ez.

*Arantxa Urbe Irazusta*  
Hezitzailea eta Hik Hasitarra





## Harod H. Hart-i

Espero dut nik adina sinesgarritasun (edo erru) lortuko duzula liburu honengatik. Ez duzu editore gisa jokatu, Summerhillek egin duen eta egiten ari den horretan sinesten duen lagun gisa baizik.

Zure pazientziak harritu egin nau. Nire aurreko lau liburuetako milaka hitz ordenatu, orraztu eta material berriarekin konbinatzea lan ikaragarria izan da.

Eskolara egin zenituen bisitetan, zure kezka nagusia ikusi, maite eta sinesten zenuen zerbait Amerikari kontatzea zela erakutsi zenuen. Hemen eskolako parte zinen. Oinarri guztiak ikusi zenituen eta, arrazoiz, axolarik ez zuena alde batera utzi zenuen, adibidez, haur zorionsuen narraskeria.

Honenbestez, Summerhillgo ohorezko ikasle hautatzen zaitut zu.

A.S. Neill  
1959ko urriaren 30a  
Summerhill, Leiston, Suffolk, Ingalaterra



## Erich Fromm-en hitzaurrea

### I

XVIII. mendean, pentsalari aurrerakoiek askatasunaren, demokraziaren eta autodeterminazioaren ideiak aldarrikatu zituzten, eta XX. mendearen lehen erdialderako hezkuntzaren esparruan gauzatu ziren ideia horiek. Autodeterminazio horren funtsezko printzipioa autoritatearen ordez askatasuna ezartzea zen, haurrari *indarra erabili gabe* irakasteko, haren jakin-min eta berezko premietara joz eta, horrela, inguratzen zuen munduaz interesa pizteko. Jarrera horrek hezkuntza aurrerakoiaren hasiera ekarri zuen eta urrats garrantzitsua izan zen giza garapenean.

Baina, metodo berri horren emaitzak etsigarriak izaten ziren askotan. Azken urteotan, gero eta erreakzio handiagoa sortu da hezkuntza aurrerakoiaren aurka. Gaur egun, jende askok uste du teoria bera okerra dela eta kareletik behera bota behar dela. Badago gero eta diziplina gehiagoren aldeko mugimendu indartsu bat, eta baita eskola publikoko irakasleek ikasleei zigor fisikoa ezartzea baimentzeko kanpaina bat ere.

Beharbada, erreakzio horren faktorerik garrantzitsuena Sobietar Batasunean irakaskuntzan lortutako arrakasta nabarmena da. Han, autoritarismoaren metodo zaharkituak zorroztasun osoz aplikatzen dira; eta badirudi emaitzek erakusten dutela, *ezagutzari* dagokionez, hobe genuela diziplina zaharretara itzultzea eta haurraren askatasunaz ahaztea.

Okerra al da indarrrik gabeko hezkuntzaren ideia? Ideia bera okerra ez bada, nola azal dezakegu haren porrot erlatibo?

Nik uste dut haurrentzako askatasunaren ideia *ez* zela okerra, baina bai askatasunaren ideia ia beti galbideratua izan dela. Gai hau argi eztabaidatzeko, lehenik askatasunaren izaera ulertu behar dugu, eta horretarako *ageriko autoritatea* eta *autoritate anonimoa*<sup>1</sup> bereizi behar ditugu.

1. Autoritatearen arazoaren azterketa zehatzago bat Erich Fromm-en *Escape from Freedom* liburuan aurki dezakegu (Rinehart and Co., Inc., New York, 1941). Euskaraz: *Askatasunetik iheska*, 1993, Klasikoak.

Ageriko autoritatea zuzenean eta esplizituki erabiltzen da. Autoritatea daukan pertsonak argi eta garbi esaten dio bere menpe dagoenari: «Hau egin behar duzu. Bestela, zigor batzuk ezarriko zaizkizu». Autoritate anonimoak erabiltzen ari den aurpegia ezkutatzeko joera du. Autoritate anonimoak autoritaterik ez dagoelako itxura egiten du, dena norbanakoaren baimenarekin egiten dela. Lehengo irakasleak Jhonnyri esaten zion bitartean: «Hau egin behar duzu. Bestela, zigortu egingo zaitut», gaurko irakasleak dio: «Ziur nago hau egitea *gustatuko* zaizula». Hemen, desobedientziaren zigorra ez da gorputz-zigorra, gurasoaren sufrimendu-aurpegia baizik, edo okerragoa dena, «doitua» ez izatearen sentsazioa transmititzea, jendarteak egiten duen bezala ez egitearena. Ageriko autoritateak indar fisikoa erabiltzen zuen; autoritate anonimoak manipulazio psikikoa erabiltzen du.

XIX. mendeko ageriko autoritatetik XX. mendeko autoritate anonimora igarotzea gure gizarte industrial modernoaren antolamendu-premiekin erabaki zuten. Kapitalaren kontzentrazioak hierarkikoki antolatutako burokraziekin kudeatzen zituzten enpresa erraldoiak sortzea ekarri zuen. Langile eta enplegatutako pilaketa handiek elkarrekin lan egiten dute, norbanako bakoitzak ekoizpen-makina antolatu handi baten zati bat, eta horrek guztiak funtzionatzeko, arazorik gabe eta etenik gabe ibili behar du. Norbanako langilea makina horren engranaje bat besterik ez da bihurtzen. Ekoizpen-antolakuntza horretan, norbanakoa zuzendua eta erabilia da.

Eta kontsumoaren arloan (non norbanakoak bere aukera askea adierazten duen, ustez), era berean zuzendua eta erabilia da. Dela elikagaien, arroparen, likoreen, zigarreten kontsumoa, edo dela zinema- edo telebista-programen kontsumoa, iradokizun-aparatu ahaltsu bat abian dago bi helbururekin: lehenik, norbanakoak salgai berrietarako duen irrika etengabe handitzea; eta, bigarrenik, irrika horiek industriarako onuragarrienak diren bideetara bideratzea. Gizakia kontsumitzaile bihurtzen da, betiko edoskitzaile, zeinaren nahi bakarra baita gehiago eta gauza «hobeak» kontsumitzea.

Gure sistema ekonomikoak bere beharretara egokitzen diren gizakiak sortu behar ditu, arazorik gabe lan egiten duten gizakiak, gero eta gehiago kontsumitu *nahi duten* gizakiak. Gure sistemak gustuak estandarizatuta dituzten gizakiak sortu behar ditu, gizaki eraginerrazak, haien beharrak aurreikusi ahal izango zaizkien gizakiak. Gure sistemak aske eta independente *sentitzen diren* gizakiak behar ditu, baina, hala ere, haiengandik espero dena egiteko prest daudenak, gizarte-makinan marruskadurarik gabe sartuko

diren gizakiak, indarrrik gabe gida daitezkeenak, buruzagirik gabe eraman daitezkeenak eta «ondo egitea» beste helbururik gabe zuzen daitezkeenak<sup>2</sup>. Ez da autoritatea desagertu denik, ezta indarra galdu duenik ere, baizik eta indarraren ageriko autoritatea limurtzearen eta iradokitzearen autoritate anonimo bihurtu dela. Bestela esanda, moldagarria izateko, dena bere baimenaz egiten delako ilusioa elikatzera behartzen da gizaki modernoa, nahiz eta onespén hori manipulazio sotilez erauzi. Haren onspén, nolabait esateko, haren ezkutuan, edo hark jakin gabe lortzen da.

Tresna berberak erabiltzen dira hezkuntza aurrerakoian. Haurrak pilula irentsi behar du, baina pilulari azukre estaldura ematen zaio. Gurasoek eta irakasleek benetako hezkuntza ez-autoritarioa eta *limurtzearen eta hertsapen ezkutuaren bidezko hezkuntza* nahasi dituzte. Horrela andeatu da hezkuntza aurrerakoa. Izan nahi zuena ez da bihurtu eta ez da inoiz nahi bezala garatu.

## II

A.S. Neillen sistema haurren hezkuntzari buruzko ikuspuntu erradikal bat da. Nire iritziz, haren liburua garrantzi handikoa da, beldurrik gabeko hezkuntzaren *benetako* printzipioa irudikatzen duelako. Summerhill Eskolan autoritateak ez du manipulazio-sistema bat moztortzen.

Summerhillek ez du teoria bat azaltzen; ia 40 urteko egiazko esperientzia kontatzen du. Egileak dio «askatasunak funtzionatzen duela».

Neillen sistemaren azpian dauden printzipioak liburu honetan aurkezten dira, sinpleki eta zalantzarik gabe. Laburbilduz, hauek dira:

1. Neillek fede sendoa dauka «haurren ontasunean». Uste du haur arrunta ez dela jaio elbarri, koldar edo arimarik gabeko automata, baizik eta ahalmen guztiak dituela bizitza maitatzeko eta bizitzaz interesa erakusteko.
2. Hezkuntzaren helburua —bizitzaren helburua, izan ere— pozez lan egitea eta zorientasuna aurkitzea da. Zorientasunak, Neillen arabera, bizitzaz interesa izatea esan nahi du; edo, nik esango nukeen bezala, bizitzari ez bakarrik garunarekin, nortasun osoarekin erantzutea.

---

2. Gure sistema industrialak norbanakoaren izaeraren egituran duen eraginari buruzko azterketa zehatzago baterako ikusi E. Fromm, *The Sane Society*, Estatu Batuak, 1955; *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea*, FCE, México, 4. ed., 1962.

3. Hezkuntzan, garapen intelektuala ez da nahikoa. Hezkuntzak intelektuala *eta* emozionala izan behar du. Gizarte modernoan, gero eta bereizketa handiagoa aurkitzen dugu adimenaren eta sentimenduaren artean. Gaur egungo gizakiaren esperientziak, batez ere, pentsamenduen esperientziak dira, haren bihotzak sentitzen duena, haren begiek ikusten dutena eta haren belarriek entzuten dutena berehala atzematea baino gehiago. Izan ere, adimenaren eta sentimenduaren arteko bereizketa horrek gizaki modernoa ia eskizoidea den buru-egoera batera eraman du, non ezer esperimentatzeko ia ezgai bihurtu baita, pentsamenduan izan ezik.
4. Hezkuntza haurraren behar psikiko eta gaitasunetara bideratu behar da. Haurra ez da altruista. Oraindik ez du maite heldu baten maitasun helduaren zentzuan. Okerra da modu hipokrita batean bakarrik erakuts dezakeen haur batengandik zer bait espero izatea. Altruismoa hartzaroaren *ondoren* garatzen da.
5. Diziplinak, dogmatikoki ezarrita, eta zigorrak beldurra sortzen dute, eta beldurrak etsaitasuna. Baliteke etsaitasun hori kontziente eta ageria ez izatea, baina, hala ere, sentimenduaren ahalegina eta benetakotasuna geldiarazten ditu. Haurren gehiegizko diziplina kaltegarria da eta garapen psikiko sendoa zapuzten du.
6. *Askatasunak ez du lasakeria esan nahi.* Hain garrantzitsua den printzipio horrek, Neillek azpimarratzen duenak, norbanakoen arteko begiruneak elkarrekikoa izan behar duela esan nahi du. Irakasleak ez du indarra erabiltzen haur baten aurka, eta haurrak ez du irakasle baten aurka indarra erabiltzeko eskubiderik. Haur batek ezin dio heldu bati trabarik egin haurra izateagatik, ezta era guztietan presiorik erabili ere, haur batek egin dezakeen bezala.
7. Printzipio horrekin estu-estu lotuta dago irakasleak bere aldetik benetako zintzotasuna izateko duen premia. Egileak dio Summerhillen lanean emandako 40 urteetan ez diola inoiz gezurrik esan haur bati. Liburu hau irakurtzen duen edonor baieztapen hori, handiuste-itxura izan dezakeena, egia hutsa dela konbentzituko da.
8. Giza garapen osasuntsuak beharrezkoa du haur batek bere gurasoekin dituen lehen mailako loturak behingoz etetea, edo gerora

gizartean izango dituen ordezkoeekin, eta benetan independente bihurtzea. Munduari norbanako gisa aurre egiten ikasi behar du. Bere segurtasuna aurkitzen ikasi behar du, ez atxikimendu sinbiotikoetan, mundua intelektualki, emozionalki eta artistikoki atzemateko bere gaitasunean baizik. Bere ahalmen guztiak erabili behar ditu munduarekin bat egiteko, mendekotasunaren edo menderatzearen bidez segurtasuna aurkitu beharrean.

9. Erruduntasun-sentimenduek haurra autoritatearekin lotzeko eginkizun nagusia dute. Erruduntasun-sentimenduak independentziarako oztopoak dira; matxinadaren, damuaren, mendetasunaren eta matxinada berriaren artean etengabe zabuka ibiltzen den ziklo bati ekiten diote. Errua, gure gizartean jende gehienak sentitzen duen bezala, ez da nagusiki kontzientziaren ahotsaren aurkako erreakzio bat, baizik eta, funtsean, autoritatearen aurkako desobedientziaren kontzientzia eta errepresalien beldurra. Ez du axola zigor hori fisikoa den edo maitasuna kentzea den, edo, besterik gabe, arrotz sentitzeko egina den. Erruduntasun-sentimendu horiek guztiak beldurra sortzen dute, eta beldurak etsaitasuna eta hipokrisia sortzen ditu.
10. Summerhill eskolak ez du erlijio-hezkuntzarik eskaintzen. Horrek ez du esan nahi, ordea, Summerhill ez dagoenik arduratuta lausoki dei daitezkeen oinarrizko balio humanistikoekin. Neillek laburki esaten du: «Bataila ez da teologian sinestunen eta teologian sinesten ez dutenen artekoa, baizik eta giza askatasunean sinestunen eta giza askatasuna kentzean sinesten dutenen artekoa». Egileak jarraitzen du: «Egunen batean belaunaldi berri batek ez ditu onartuko egungo erlijio eta mito zaharkituak. Erlijio berria iristen denean, gizakia bekatuan jaio izanaren ideia ezeztatuko du. Erlijio berri batek Jainkoa goraiapatuko du gizakia zoriontsu eginez».

Neill egungo gizartearen kritikaria da. Garatzen dugun pertsona mota masa-gizakia dela azpimarratzen du. «Gizarte zoro batean bizi gara» eta «gure erlijio-praktika gehienak fartsa hutsak dira». Guztiz logikoa denez, egilea internazionalista da, eta jarrera irmo eta porrokatuari eusten dio, gerrarako prestasuna giza arrazaren atabismo basatia da.

Zinez, Neill ez da saiatzen haurrak egungo ordenan ondo sar daitezen hezten, baizik eta gizaki zoriontsu bihurtuko diren haurrak hazten saiatzen

da, gizon eta emakumeak, zeinen balioak ez baitira asko *edukitzea*, ezta asko *erabiltzea* ere, asko *izatea* baizik. Neill errealista da; nahiz eta berak hezten dituen haurrek ez duten nahitaez arrakasta handirik izango zentzu mundutarrean, zintzotasun-zentzu bat lortuko dutela ikus dezake, eta horrek eraginkortasunez eragotziko diela moldatu gabeko lagun edo eskale goseti bihurtzea. Egileak erabaki bat hartu du giza garapen osoaren eta merkatuko arrakasta osoaren artean, eta oso zintzoa da aukeratu duen helbururako bidea ibiltzen duen moduan.

### III

Liburu hau irakurtzen, izugarri susperturik eta adoreturik sentitu nintzen. Beste irakurle askok egingo dutela espero dut. Horrek ez du esan nahi egileak egiten dituen adierazpen guztiekin ados nagoenik. Zalantzarik gabe, irakurle gehienek ez dute liburu hau Ebanjelioa balitz bezala irakurriko, eta ziur nago egileak, are gutxiago, hori gertatzea nahiko lukeela.

Nire bi erreserba nagusi aipa ditzaket. Iruditzen zait Neillek munduaren atzemate intelektual baten garrantzia, plazera eta benetakotasuna gutxiesten dituela, haren atzemate artistiko eta emozionalaren mesedetan. Gainera, egilea Freuden suposizioetan murgildurik dago eta, nire iritziz, sexuaren garrantzia gehiegi balioesten du, freudiarrek egiten duten bezala. Hala ere, egilea haur baten baitan gertatzen dena hain ondo ulertzen duen gizona delako irudipena gordetzen dut, non kritika horiek gehiago lotzen bai-tzaizkie haren formulazio batzuei, haurrarekiko benetako ikuspuntuari baino.

«Errealismo» hitza azpimarratzen dut, egilearen ikuspuntuan gehien hunkitzen nauena *ikusteko* gaitasuna delako, errealitatea fikziotik bereizteko gaitasuna, jende gehiena bizi den arrazionalizazioetan eta ilusioetan ez murgiltzeko gaitasuna, zeinen bidez benetako esperientzia blokeatzen baitute.

Neill gaur egun bakana den adore mota duen gizona da: ikusten duen horretan sinesteko eta errealismoa arrazoimenean eta maitasunean fede apurtezinarekin lotzeko adorea. Bizitzarekiko konpromisorik gabeko mirespena du, eta norbanakoarekiko begirunea. Esperimentatzailea eta behatzailea da, ez egiten ari den horretan interes egoista duen dogmatikoa. Hark hezkuntza eta terapia konbinatzen ditu; baina, harentzat terapia ez da «arazo» berezi batzuk konpontzeko aparteko kontu bat, baizik eta, besterik gabe, haurrari bizitza hor dagoela atzemateko erakusten duen prozesua, eta ez hartatik ihes egiteko.



Irakurleak argi izango du liburu honek kontaktzen duen esperimentua nahitaez gure egungo gizartean maiz errepikatu ezin den esperimentu bat dela. Hori ez da bakarrik Neill bezalako pertsona harrigarri batek egin behar duelako, baita guraso gutxik beren haurren zorientasunaz «arrakastaz» baino gehiago arduratzeko ausardia eta independentzia dutelako ere. Baina, horrek ez du inola ere liburu honen garrantzia gutxitzen.

Gaur egun Estatu Batuetan Summerhill bezalako eskola bat ez badago ere, edozein gurasok onura atera dezake liburu hau irakurrita. Kapitulu horiek desafiatuko dituzte beren haurreenganako ikuspuntua berriro pentsatzeko. Neillek haurrak erabiltzeko duen modua eta jende gehienak «permisibotzat» hartzeagatik isekaz alde batera uzten duena oso desberdinak direla aurkituko du. Neillek behin eta berriro esaten du haurren eta gurasoen arteko harremanetan nolabaiteko oreka —*lasaikeriarik gabeko askatasuna*— dela etxeko jarrerak erabat alda ditzakeen pentsamendu mota.

Guraso gogoetatsua harritu egingo da bere haurren aurka nahi gabe erabiltzen ari den presioaren eta indarraren mailaz konturatzean. Liburu honek adiera berriak eman behar dizkie *maitasun, onespén, askatasun* hitzei.

Neillek bizitzarekiko eta askatasunarekiko begirune irmoa erakusten du, eta indarraren erabileraren ukazio erradikala. Metodo horien bidez hazitako hurrek arrazoimenaren, maitasunaren, zintzotasunaren eta ausardiaren nolakotasunak garatuko dituzte beren baitan, horiek baitira Mendebaldeko tradizio humanistaren helburuak.

Summerhillen behin gerta badaiteke, alde guztietan gerta daiteke, *jendea horretarako prest dagoenean*. Izan ere, egileak dioen bezala, ez dago haur problematikorik, baizik eta «guraso problematikoak» eta «gizateria problematikoak». Uste dut Neillen lana ernamuinduko den hazia dela. Denborarekin, haren ideiak orokorrean onartuko dira gizarte berri batean, non gizakia bera eta bere garapena baitira ahalegin sozial ooren helburu gorena.



*Zure haurrak ez dira zure haurrak.  
Bizitzaren irrikaren seme-alabak dira berez.  
Zure bidez etortzen dira, baina ez zuregandik  
eta zurekin badaude ere, ez dira zureak.*

*Zure maitasuna eman diezaiekezu, baina ez zure pentsamenduak,  
beren pentsamenduak baitituzte.  
Haien gorputzak har ditzakezu, ez ordea haien arimak,  
haien arimak biharko etxean bizi baitira, zuk bisitatu ezin duzun  
etxean,  
ezta zure ametsetan ere.  
Haiek bezalakoak izaten saia zaitezke, baina ez saiatu zu bezalakoak  
egiten  
bizitzak ez baitio atzokoari begiratzen, ez itxaroten ere.*

*Zuek zarete zuen haurrak gezi biziak bezala bidaltzen dituzten  
arranbelak.*

.....

*Zure makurdura arkulariaren eskuan poztasunerako izan dadila.*

Khalil Gibran



## Sarrerako hitza

Psikologian, inork ez daki asko. Giza bizitzaren barneko indarrak oraindik ezkutatu egiten zaizkigu hein handi batean.

Freuden jonioak bizia eman zionetik, psikologia urruti joan da; baina oraindik zientzia berria da, kontinente ezezagun baten itsasertza kartografiatzen. Berrogeita hamar urte barru, psikologoek ziur aski irribarre egingo dute gaur egun dugun ezjakintasunaren aurrean.

Hezkuntza utzi eta haur-psikologiari ekin nionetik, mota guztietako haurrak izan ditut haiekin tratatzeko: su-eragileak, lapurrak, gezurtiak, ohean pixa egiten zuten haurrak, aldarte txarreko haurrak. Haurren prestakuntzan lan trinkoko urteek konbentzitu naute bizitza eragiten duten indarrei buruz gutxi dakidala. Ziur nago, hala ere, beren haurrei bakarrik aurre egin behar izan dieten gurasoek nik baino askoz gutxiago dakitela.

Izan ere, haur zail bat ia beti etxean tratu txarra jasotzeagatik zailtzen dela uste dudalako, ausartu egiten naiz gurasoengana jotzen.

Zein da psikologiaren eremua? *Sendaketa* hitza iradokitzen dut. Baina, zer sendaketa mota? Ez dut sendatu nahi laranja eta beltza koloreak aukeratzeko dudan ohituraz; ez dut erretzeaz sendatu nahi; ezta botila bat garagardoren zaletasunaz ere. Ezein irakaslek ez du eskubiderik haur bat danbor batean zarata egitetik sendatzeko. Egin behar den sendaketa bakarra dohakabetasuna sendatzea da.

Haur zaila haur dohakabea da. Bere buruarekin gerran dago eta, ondorioz, munduarekin gerran dago.

Heldu zaila ontzi berean dago. Ezein gizon zorionsuk ez du inoiz bilera bat aztoratu, edo gerra aldarrikatu, edo beltz<sup>3</sup> bat lintxatu ere. Ezein emakume zorionsu ez zaie inoiz bere senarrari edo bere haurrei errietan aritu. Ezein gizon zorionsuk ez du inoiz hilketa edo lapurreta bat egin. Ezein ugazaba zorionsuk ez ditu inoiz bere langileak izutu.

---

3. **Beltz:** jatorrizkoan 'negro', gutxiespen-zentzuan erabiltzen zen garai hartan ingelesez.

Krimen guztiak, gorroto guztiak, gerra guztiak dohakabetasunera murriz daitezke. Liburu hau ahalegin bat da erakusteko nola sortzen den dohakabetasuna, nola hondatzen dituen giza bizitzak, eta nola haz daitezkeen haurrak dohakabetasun horren zati handi bat inoiz sor ez dadin.

Hori baino gehiago, liburu hau leku baten historia da, Summerhill, non haurren dohakabetasuna sendatzen den eta, garrantzitsuagoa dena, non haurrak zorientasunean hazten diren.